

Kirolak eta pitzadurak

Aurreko zenbakian futbola bezain kirol ximple bat praktikatzeke instalakuntza egoki batzuen falta aipatzen banuen, zenbaki honetan, herrian diren guztiak (bakarra) aztertzen saiatuko naiz. Denak pentsatuko zenuten bezala, hirugarren mundukoa dirudien 1928. urteko frontoi horretaz mintzo naiz. Arrazoiak ez zaizkit falta hirugarren mundukotzat hartzen dudanean, begiradatxo bat botatzea nahikoa da ulertzeko.

Pilota jokoari dagokion lekua nahiko itxurazkoa da, baina aurpegi garbiketa bat ez litzaioke batere gaizki etorriko. Aldiz, eskubaloitari dagokion (edo zegokion) lekua deskalabro hutsa dela esan dezakegu, pitzaketez josia aurkitzen bait dugu superfizie osoa. Porteriei buruz hitzik ere ez. Porteriak baino gehiago puzzleak dirudite: zati bat hemendik, bestea handik. (Jaietan nahigabe bat ere sortu zuten). Agian jokalaria ajolakabe baten errua izango da, baina lan beharrean aurkitzen den zurgin bateri lantxo hori ematea ez litzateke batere gaizki egongo.

Zazpi foko daude, eta hauetatik sei fundituak (hau idazteko garaian behintzat) Rekord bat, jaunok!. Eta bukatzeko, zergaitik ez frontoi guztia sare batekin bildu? Honela ez ginen txorruak bezala pelotak etab bilatzen ibiliko.

Instalakuntza bakarra izanik, udaletxea frontoiaren egokitze lanetaz arduratzeko garaia iritxia dela uste dut, batez ere, ikusiaz polikiroldegiarena luzerako dijoala.



Juan Luis Urkizu

A : Hemen ikusten dugu eskubaloia zelaia zeharkatzen duen pitzadura bat.